



SEGURTASUN SAILA
Babes Zibileko Sailburuordetza
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta
Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Protección Civil
Dirección de Régimen Jurídico, Servicios
y Procesos Electorales

EBAZPENA, ARAUBIDE JURIDIKOAREN, ZERBITZUEN ETA HAUSTESKUNDE PROZESUEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ JENDAURREAN JARTZEN BAITA JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN LEGEA GARATZEKO ERREGLAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETUA BIGARRENEZ ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA

DNCG_DEC_5650/25_07

Segurtasuneko sailburuaren 2025eko azaroaren 5eko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua bigarrenez aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legea betez, Segurtasuneko sailburuak dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzeko agindua eman du 2025eko azaroaren 27an.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluan (herritarrek lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoa) xedatutakoa betez, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egin behar da, dekretu-proiektuari buruz herritarren eta erakundeen iritzia eta ekarpenak jasotzeko.

Horretarako, jendaurrean jartzen da jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen dekretua bigarrenez aldatzeko dekretu-proiektua, hilabetez, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Azaldutakoagatik, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa: Jendaurrean jartzea jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen dekretua bigarrenez aldatzeko dekretu-proiektua, hilabetez, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa betetze aldera, dekretu-proiektua eskuragarri egongo da Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzan (Donostia kalea 1,





Vitoria-Gasteiz) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-aula elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa>).

Bigarrena: Alegazioak, epe horren barruan, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzara bidali beharko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2025 Legean aurreikusitako moduetako edozeinetan.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

GOIATZ AIZPURU LIZARRALDE

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.